

II. ERANSKINA Zinpeko aitorpena elkarte, merkataritza/ostalaritza establezimendu eta enpresa eskatzaileek Oiartzungo Udalaren egitasmoetako ekimenetan parte hartzeaz

Eskatzaileak hau aitortzen du:

Eskatu duen dirulaguntza ondorengo egitasmoaren baitan eskatu duela

EUSKARA KOMERTZIORA: Oiartzungo merkatal eta ostalaritza establezimenduetan euskararen erabilera sustatzeko egitasmoa.

EUSKARA ELKARTERA: Oiartzungo elkarteetan euskararen erabilera sustatzeko egitasmoa.

LANIN: Oiartzungo enpresa txiki eta ertainetan euskararen erabilera sustatzeko egitasmoa.

OLA PLANA: Oarsoaldeko enpresetan Euskara Planak martxan jarri eta jarraipena egiteko egitasmoa

Eskatzaileak ondorengo konpromisoak hartzen dituela:

Eskatzaileak euskararen erabilera normalizatzearekin zerikusia duten gaietarako mintzakidea izendatua izango du uneoro. Dokumentu hau sinatzen den momentuan izendatuta dagoena da eta berarekin kontaktuan jartzeko bideak ondorengoak: telefonoa: e-posta:

Jarraipena: Oiartzungo Udalarri edo bere izenean lanean ari denari euskararen erabileraren normalizaziorako emandako urratsen jarraipena egiteko laguntza emango dio eskatzaileak.

Euskararen erabileran emandako urratsetan atzerapausorik ez emateko neurriak hartuko ditu eskatzaileak.

Eskatzaileak euskararen erabilera normalizatzeko Oiartzungo Udalak proposatuko dizkion ekimenak entitatean abian jartzeko ahalegina egingo du.

Eskatzaileak baimena ematen duela elkarte, establezimendu edo enpresaren izena egitasmoaren argitalpenetan publiko egiteko.

Eta, hala ager dadin, izenpetu egiten du.

(Data eta sinadura)